



44.472

(edo rekortomotxo iruzurra)

Otsailaren 16an, **steilas**, LAB eta ELA sindikatuok, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza publikoan Eusko Jaurlaritzak inposatutako murrizketen aurkako kanpaina bat hasi genuen. Murrizketa hauen kalteak ikastetxe publikoetan ordezkapenak betetzen ditugun kolektibokook sufritu ditugu bereziki. Hamaika aldiz salatutako murrizketei, legegintzaldi honetako ordezkoen kudeaketa negargarria batzen badiegu, ordezkoen etorkizun hurbila zalantzagarria aurreikusten dugu, ezin zalantzagarriagoa.

EAE-ko unibertsitate azpiko irakaskuntza publikoan indarrean dagoen lan hitzarmenak, (PSOE-PP gobernuarekin gutxiengoan sinatuta), baja egoerak zein egunetik ordezkaturako diren zehazten du: ohikoenak aipatzearen, Pedagogia Terapeutikoa lehen egunetik, Haur Hezkuntza 2.egunetik, Lehen Hezkuntza 4.egunetik eta Bigarren Hezkuntza 5.egunetik. Hitzartutakoa eskasa izanik ere, jakina da hezkuntza departamenduak ez duela betetzen.

Murrizketa horrek, baja egoerak lehen egunetik ez betetzeak, ikaragarriko triskantza sortzen du irakaskuntza publikoko eremu guztietan: ordezko zain egunak daramazkiten ikastetxe eta ikasleengan, baja bete behar duen ordezkoengan, gaixotzen diren langileengan (aplikatzen dizkiguten kenkari aski ezagunak) eta lanean dauden langileengan lan zama gehigarria dakartelako. Finean, Eskola Publikoaren kalitatearen aurkako neurria da.

Eusko jaurlaritzak legegintzaldi honetan "zenbakien atzean pertsonak daude" leloa sustatu du. Azter dezagun 44.472 zenbakia eta horrek atzean dituen pertsonak.

Administrazioak helarazitako informazioaren arabera, betetzen diren ordezkapenen kasuan, 2015-2016 ikasturteko lehen hiruhilekoan guztira 4.568 ordezkapen bete dira.

Lehen hiruhileko datua lagintzat hartuta, eta lan hitzarmena hitzez hitz betetz ordezkapen kopurua ikasturte osora zabalduz, 44.472 lanegun bete gabe ateratzen zaizkigu. Zer esan nahi du honek?

–44.472 lanegun ordezkooi lanik eman gabe (gehi dagozkien asteburu eta opor egunak)

–44.472 lanegunetan, ikastetxeak eta ikasleak ordezkoen zain.

–44.472 eguneko lan zama gehigarria ikastetxean dauden langileentzat.

Hezkuntza Saila, langileekiko, eskolekiko, ikasleekiko eta familiekiko arduragabekeriaz eta krudelkeriaz jokatzeko ari da.

Atera kontuak, lan hitzarmen horrek bost urtez zenbat lan emateari utzi dion eta zer nolako kalteak eragin dizkion Eskola Publikoari bere osotasunean. Bitartean, sailburua, 275 lanpostuko enplegu eskaintza zabalduz dabil lau haizeetara. Eskaintza eskasa gure ustez, eta irakaskuntza publikoko behin

behinekotasun arazoari konponbiderik ematen ez diona.

Ikastetxe publikoen kalitatea hobetzeko neurririk egokiena, langileen lan baldintza duinak bermatzea, egonkortasuna ziurtatzea (ez bakarrik EPEaren bidez), ratioak jaistea, formazioa indartzea eta ordezkapenak lehen egunetik betetzea da.

Departamentuaren aurreikuspen falta nabarmena alboratuz, intentzio maltzurrek eta joko arauen aldaketek dakartzaten ondorioak ere salatu nahi ditugu:

Batetik, HEZIBERRIK, egun indarrean dauden dekretuek, langileen kudeaketarako eredu gerentziala ezarri nahi dute, non, aukera berdintasunari muzin eginez, zuzendariak irakasleak aukeratzeko ahalmena izango duten. Eredu horrek, lehiakortasun basatia sustatuko duenak irakasle guztiengan eta ordezkotengan batipat, zalantza batzuk sortzen dizkigu.

Ikastetxe kontzertatuetan ezartzen den irakasleen aukeraketa ereduak proposatzen du departamentuak ikastetxe publikoetarako?

Langileak aukeratzeko orduan lagunkeria edota ideologia antzekotasunak lehenesteko aukera zabalduko da?

Bestetik, departamentuak ordezkoen araudian proposatzen dituen aldaketak (EPEa gainditu baina lanpostua atera ez duten irakasleei puntuak ematearen burutazioa) ordezkoen zerrendak guztiz irauliko lituzke.

Ordezkapenak lehen egunetik ez betetzeak, zerrenda irekialdien aurreikuspen falta nabarmenak, eta deialdia egitetik gauzatzeraino pasatzen den denbora luzeak (2-3 hilabete) ondorio ikaragarriak dakartza guztiontzako.

Honegatik guztiagatik, **steilas** sindikatuak "pertsona helburu" leloa zabal diezaiela 44.472 zenbakiaren atzean dauden ikasle, familia eta Eskola Publikoko langileei eskatzen dio departamentuari. Urteroko 44.472 lanegunek bost urtez jende askori eragiten baitie.

Bitartean Uriarte sailburua eta mezalagunek, "irakasle onenaz", "irakasle konprometituenaz", "irakasleen ebaluazioaz" ... dihardute han eta hemen. Etiketa hauek albo batera utzi eta egoera gehiago okertu aurretik, irakasle "onenak" ez badira ere, bidal ditzatela, azkar baino lehen, ordezkoak eskoletara, denon mesederako.

steilas